

# 2022KO INGURUMEN KOMUNIKAZIOKO ESKOLAREN MEMORIA

'KRISI  
EKOLOGIKOA,  
KRISI  
SANITARIOA'



UDA IKASTAROAK  
CURSOS DE VERANO  
SUMMER COURSES





# AURKIBIDEA

---

1

Eskola

2

I. jardunaldia

3

II. jardunaldia

4

Hizlariak



# ESKOLA

**Ihobek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko sozietate publikoak, eta APIA Ingurumen Informazioko Kazetarien Elkarteak Ingurumen Komunikazioko Eskola bultzatzen dute. Eskolak, 2022ko edizioan, 'Krisi ekologikoa, krisi sanitarioa' izan du gai nagusia.**

Ingurumen Komunikazioko Eskolaren laugarren edizioa 2022ko irailaren 7an eta 8an egin zen, EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroen barruan. Aurten ere, Donostiako Miramar jauregian goi-mailako hizlariak ingurumen-erronka handien inguruko komunikazioaren gakoak azaldu zituzten, online formatuan ere jarraitu ahal izan ziren bi jardunalditan.

"Krisi ekologikoa, krisi sanitarioa' lelopean, hainbat gai jorratu ziren, hala nola krisi klimatikoa, biodibertsitatearen galera, ingurune naturalaren kontserbazioa, ekonomia zirkularraren ezarpena, garapen jasangarria edo ilustrazioa ingurumen komunikaziorako tresna gisa".

2022ko edizioaren helburua izan da krisi klimatikoaren, ekosistemen kontserbazioaren eta pertsonen osasunaren artean dagoen lotura estua aztertzea. Koronabirusak eragindako pandemiak agerian utzi du krisi sanitarioa, hein handi batean, krisi ekologikoaren ondorioa dela eta pertsonen osasuna planetaren osasunaren mende dagoela.

2022ko Ingurumen Komunikazioko Eskola irailaren 7an hasi zen ofizialki, Itziar Alkorta EHUko Uda Ikastaroak Fundazioko zuzendariaren eta Amaia Barredo Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordearen eskutik. Beren irekiera-hitzaldietan, gaur egungo larrialdi klimatikoari buruz hitz egin zuten biek, baita komunikazioak gizarte osoari aurre egin beharreko aldaketa garrantzitsuan inplikatzeko beharrari buruz ere.

APIA Ingurumen Informazioko Kazetarien Elkarteko presidente María García de la Fuente eman zion hasiera ikastaroari ‘Pandemia klimatikoa eta pandemia sanitarioa komunikatzea’ izeneko hitzaldiarekin, eta oso mezu argia utzi zuen: “ukaezina da ingurumenaren eta osasunaren arteko lotura”. Gainera, herritarrek gero eta gehiago eskatzen dutenez ingurumenari buruzko informazioa, APIAko presidentek nabarmendu zuen kazetari espezializatuak behar direla informazio zorrotza eta egiaztatua emateko, betiere analisitik abiatuta eta soluzioen kazetaritzaren alde eginez.

**“Ezinbestekoa da ingurumenaren eta osasunaren arteko lotura. Ingurumen-komunikazioan, informazio zehatz eta zientifikoa emango duten kazetari espezializatuak behar ditugu”.**

**María García de la Fuente**

-

**APIAko lehendakaria**

Lehen jardunaldi honetan, Ana María Alonso Zarza IGME-CSIC Espainiako Geologia eta Meatzaritza Institutuko zuzendariak ere parte hartu zuen ikastaroan, eta galdera bat egin zuen: ‘Antropozenoan bizi gara?’. Premisa horren pean, geodibertsitateak biodibertsitatearen euskarri gisa duen garrantzia nabarmendu zuen Alonsok, eta etengabe aldatzen ari den planeta batean gizateria uzten ari den arrastoaz eta planetarekin modu seguru eta jasangarrian bizitzen jarraitzeko beharraz ohartarazi zuen.



**“Gizateriak ez du planeta suntsitzeko gaitasunik, baina planetak egin dezakeena da gizakiak kanporatzea”.**

**Ana María Alonso Zarza**


-

**IGME-CSICeko zuzendaria**


Euskadin klima-aldaketa komunikatzeko moduari buruzko programaren lehen mahai-inguruarekin jarraitu zuen saioak. Kazetarien Euskal Elkarte eta Elkargoko lehendakari Amaia Goikoetxeak moderatuta, Julen Rekondo eta Gorka Belamendía ingurumen-dibulgatzaileek eta Eva Caballero kazetariak parte hartu zuten. Elkarrizketan zehar, bat etorri ziren ingurumen-dibulgazioaren bidez herritarrengana heltzearen garrantziaz, informazio-iturri egokiak izango dituzten erredakzio prestatu eta espezializatuetatik.

Lehen jardunaldiari amaiera emateko, bi deialdi izan ziren arratsaldean. Alde batetik, Ainhize Butrón Ihebeko Ekintza Klimatikoaren arloko teknikariak zuzendutako bisita egin zen. Naturan oinarritutako soluzioak aplikatuz Erreterian, azpiegitura-korapilo batez estalitako tarte batean, hiriko ibai-korridorea birnaturalizatzeko proiektua erakutsi zien bertaratutakoei teknikariak. Iñaki Azkarate Erretereriako Udaleko Ingurumeneko teknikariak eta Javier Belza Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko aholkulariak taldea hartu eta proiektua aurkeztu zioten.

Eta, bestetik, publikoari online zuzendutako 'Ekintzara bultzatzeko irudiak' izeneko lantegia antolatu zen. Bertan, Sergi Reboredo fotokazetariak 20 urte baino gehiagoren errepaso bat egin zuen. Hain zuzen, 5 kontinenteetako dozenaka herrialdetako argazkiekin klima-aldaketaren ondorioak dokumentatuta dauzka.



‘Krisi klimatikoa eta giza osasuna’ gaia hautatu zuen CSICeko eta Juan Carlos Erregea Unibertsitateko zientzialari eta irakasle Fernando Valladaresek. Bera arduratu zen, hain zuzen, Eskolaren bigarren jardunaldiari hasiera emateaz. Solasaldi bizi batean, ohartarazi zuen klima-aldaketak bultzatuta espezieak galtzeko arriskuaz. Izan ere, klima-aldaketak ekosistemen oinarria (lurzorua) eta osagaiak (biodibertsitatea) mehatxatzen ditu, eta, horrek, aldi berean, klima-aldaketa bizkortzen du. Gainera, esan zuenez, denok lagundu dezakegu gizadi osasuntsuagoa, bizitza luzeagokoa eta zoriontsuagoa lortzen. Eta ingurumen garbi eta osasungarria eskubide unibertsala delako ideiarekin amaitu zuen.



**“ Denok lagundu dezakegu gizadi osasuntsuagoa, bizitza luzeagokoa eta zoriontsuagoa lortzen. Ingurumen garbi eta osasungarria eskubide unibertsala da”.**

**Fernando Valladares**

-

**CSICeko eta Juan Carlos Erregea  
Unibertsitateko irakaslea**

Ondoren, antolatutako mahai-inguru batean honako hauek parte hartu zuten: Arturo Larena (EFE Agentzia), Juan López Rico (kazetaria eta umorista grafikoa), Andrés Rábago ‘El Roto’ (margolaria eta marrazkilaria), Elena Rodríguez (arkitektoa), Lorena Martínez (ilustratzailea) eta Rafael Ruiz (El Asombrario aldizkaria). Umorearen, ilustrazioaren eta ingurumenaren arteko harremana izan zuen ardatz mahai-inguruak. Aipatu zen adierazpen grafikoa eta umorea publiko zabalago batengana modu erakargarriagoan iristeko eta ekintzara eramango duten sentimenduak sortzeko tresnak direla.



# II. JARDUNALDIA

MIRAMAR JAUREGIA 2022/09/08

Ikastaroa beste mahai-inguru batekin amaitu zen. Krisi energetikoaren eta bidezko trantsizioaren testuinguruan larrialdi klimatikoa komunikatzeko erronkaz aritu ziren mahai-inguru horretan. Gai hori aztertzeko, honako hauen partaidetza izan zen: Gemma Teso, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakaslea eta Klima Aldaketaren Komunikazioaren Behatokiko koordinatzailea; Helena Vizcay, ECODESeko Komunikazioko zuzendaria; eta Cristina Monge, politologoa eta Zaragozako Unibertsitateko Soziologiako irakaslea. Elkarrizketan zehar, 2019an 80 komunikabidek sinatutako 'Klima-aldaketaren berri emateko gomendioen dekalogo' nabarmendu zuten. Egun dokumentua eguneratzen ari dira, hedabideetara ez ezik, instituzioetara ere iristeko.



MIRAMAR  
JAUREGIA,  
GOI-MAILAKO  
PROFESIONALEN  
TOPAGUNEA

---

## INAUGURAZIO INSTITUZIONALA

---



### Amaia Barredo Martín

Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuordea  
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta  
Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza

Harro egoteko da eskola hau nola sendotzen den eta erreferentzia bihurtzen den ikustea. Ingurumenak komunikazioa behar du, baina komunikazioak ere ingurumena behar du, transmititzen dituen balioengatik. Euskadik duela bi urte bat egin zuen Europako Itun Berdearekin, eta garapen jasangarriago baten alde lan egiten du. Horretarako baliatzen dituen tresnen artean, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Lege berria dago. Klima-aldaketarekiko sentsibilitate gero eta handiagoa dagoela uste dugu, eta gizarte osoa aldaketa horretan inplikatzeko gai izan behar dugu.

## ‘ PANDEMIA KLIMATIKOA ETA PANDEMIA SANITARIOA KOMUNIKATZEA ’

---

### María García de la Fuente

APIA – Ingurumen Informazioko Kazetarien  
Elkarteko presidentea



Klima-aldaketa herrialdearen mehatxutzat eta arrisku pertsonaltzat hautematen da, baina herritarren interes-maila alderantziz proportzionala da komunikabideek gai horri eskaintzen dioten espazioarekiko. Komunikabideok badugu zeregin bat ingurumen-hezitzaile gisa, eta soluzioen kazetaritza bat eskaini behar dugu, kontzientziak mugiaraziko dituen informazio sarriago, hurbilago, espezializatuago eta zeharkakoagoaren bidez.

## 'ANTROPOZENOAN BIZI GARA?'

---



**Ana María Alonso Zarza**

Espainiako Geologia eta Meatzaritza  
Institutuko zuzendaria (IGME, CSIC)

Geodibertsitatea biodibertsitatearen euskarria denez, naturaren kontserbazioak geologiaren babesa ere barne hartu behar du. Antropozenoa gizakiak planetan iraunkorra izan daitekeen aztarna bat sortzeko duen ahalmenaz ari da. Erantzukizuna geure gain hartu behar dugu, planetan modu seguru eta jasangarrian bizitzen jarraitu beharra daukagulako. Geologia funtsezko zientzia bihurtzen da baliabideak lortu eta arriskuak kudeatu ahal izateko.



## MAHAI-INGURUA 'EUSKADIN INGURUMENA KOMUNIKATZEA'

---



**Amaia Goikoetxea**  
Kazetarien Euskal  
Elkarte eta Elkargoko  
lehendakaria



**Julen Rekondo**  
Ingurumen-aholkularia  
eta -dibulgetzailea



**Eva Caballero**  
Radio Euskadiko 'La  
mecánica del caracol'  
programaren  
zuzendaria



**Gorka Belamendía**  
Ingurugiro Gaietarako  
Ikastegiko teknikaria  
eta Atariaren  
koordinatzailea

- Alarmismoa da ingurumen-komunikazioaren etsai nagusia.
- Pandemiarekin gizarteak ulertu du ondo azaldutako ezagutza zientifikoak lasaitasuna dakarrela. Gauza bera egin beharko genuke klima-aldaketarekin, hau da, albisteak testuinguruan jartzen dituzten espezialistak egotea.
- Ulertu egin behar da ingurumena eta klima-aldaketa komunikatzeko, eta, horrela, dinamika itxaropentsuak sortzeko.
- Ez gaitezen bakarrik geratu krisi klimatikoaren ondorioetan; egin dezagun soluzioen kazetaritza.
- Ingurumen-balioak hedatzeko, funtsezkoa da kazetaritza kritikoa eta independentea.



## 'KRISI KLIMATIKOA ETA GIZA OSASUNA'



**Fernando Valladares**

Zientzialaria eta irakaslea – CSIC eta Juan Carlos Erregea Unibertsitatea

Gaur egun, milioi bat espezie (% 11,5) daude galtzeko arriskuan, eta, horiez gain, espezie gehiago desagertzekoan. Bera, gero eta arrisku handiagoa dago sistema kolapsatzeko. Klima-aldaketarekin eta zenbait kutsadura motarekin lotuta dago galera hori. Inork ez zuen atmosfera berotzeko asmorik izan, baina egin dugu, gizakiak planeta-eskala duten gauzak nahi gabe egiten dituelako. Gizartearen, ekonomiaren, zientziaren eta ingurumenaren arteko konbinazioaren ondorio da giza osasuna. Denok lagundu dezakegu gizadi osasuntsuagoa, bizitza luzeagokoa eta zoriontsuagoa lortzen. Ingurumen garbi eta osasungarria eskubide unibertsala da.



# MAHAI-INGURUA


## 'UMOREA, ILUSTRAZIOA ETA INGURUMENA. ETORKIZUNA 10 BINETATAN'




**Arturo Larena**  
Ingurumen eta  
Zientziako zuzendaria –  
EFE agentzia




**Juan López Rico**  
Kazetaria eta umorista  
grafikoa




**Andrés Rábago 'El Roto'**  
Margolaria eta  
marrazkilaria



**Elena Rodríguez**  
Arkitektoa –  
DEALLERES



**Lorena Martínez**  
Ilustratzailea



**Rafael Ruiz**  
Koordinatzailea – El  
Asombrario aldizkaria

- Gizarte batik bat bisual batean bizi gara, eta irudia burmuinera zuzenean doan ohartarazpen bat bezalakoa da.
- Ingurumeneko kazetariok beti publiko berarengana iristen gara; hizkuntza berriak asmatu behar ditugu, hala nola bineta eta ilustrazioa.
- Marrazkiak sinbologiaren, esajerazioaren, estetikaren edo enpatiaren bidez komunikatzen laguntzen du.
- Umoreak diskurtsoa erakargarriagoa egiten du, hartzaillearen arreta hobeto bereganatzen du eta mezua gogoratzen laguntzen du.
- Umoreak adierazpen-askatasuna indartzen du, errealitatea desitxuratzeko aukera ematen du eta sintesi-ahalmen izugarria du.



# MAHAI-INGURUA

## 'LARRIALDI KLIMATIKOA KOMUNIKATZEA KRISI ENERGETIKOAREN ETA BIDEZKO TRANTSIZIOAREN TESTUINGURUAN'

---



**Gemma Teso**

Irakaslea - Madrilgo  
Unibertsitate Konplutentsea |  
Klima Aldaketaren  
Komunikazioaren Behatokiko  
koordinatzailea



**Helena Vizcay**


ECODESeko  
Komunikazioko  
zuzendaria - Ekologia  
eta Garapena  
Fundazioa



**Cristina Monge**

Politologoa,  
Soziologiako irakaslea  
- Zaragozako  
Unibertsitatea

- Klima-aldaketaren ebidentziekin (bero-boladak, muturreko lehortea, energia gerra-arma gisa erabiltzea...), ekaitz perfektua bizitzen ari gara. Orain, elementu horiek ahalik eta modurik eraginkorrenean komunikatzeko modua nabarmendu behar da.
- 'Klima-aldaketaren berri emateko gomendioen dekalogoia' 2019an aurkeztu zen, eta orain berrikuspen bat behar du gaur egunera egokitzeko.
- Hasiera batean, kontzeptualizazio sozialen esparruan lan egiten dugu (jasangarritasuna, biodibertsitatea, garapen jasangarria, planetaren mugak, ekofeminismoa, urbanozentrismoa, kapitalismoa eta krisi ekosoziala).
- Berrikuspenean 4 ardatz lantzen ditugu:
  - Ikuspegia: ikuspegi etikoa txertatzeko beharra, zoriontasuna kontsumoan ez datzala azpimarratuta.
  - Narratiba: formatuak audientzia berrietara egokitu behar dira, ez bakarrik informazioan oinarrituta, baita analisisian eta eztabaidan ere.
  - Euskarriak: ekosistema digital bat dago; klima-aldaketak zeharkakoa izan behar du.
  - Edukia: inpaktuak giza dimentsioarekin, biodibertsitatearekin, energiarekin, gobernantzarekin, demokrazia handiagoarekin... lotzea.



Ingurumen Komunikazioko  
Eskolak aldarrikatu du, beste  
edizio batez, **komunikazioak**  
duen zeregina **ekintza**  
mobilizatzeko, natura-  
ondarea kontserbatzeko,  
biodibertsitatearen galera  
geldiarazteko, gure  
ingurumen-aztarna  
murrizteko eta klima-  
aldaketaren aurrean  
jarduteko tresna gisa.

---

# MILLAESKER

## BATZORDE ANTOLATZAILEA

---



UDA IKASTAROAK  
CURSOS DE VERANO  
SUMMER COURSES



Donostia  
Sustainability  
Forum



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Foroaren Logotipoa  
Eusko Jaurlaritzaren Logotipoa  
Eusko Jaurlaritzaren Logotipoa  
Eusko Jaurlaritzaren Logotipoa



EUSKADIKO ITUN  
VERDE  
BERDEA DE EUSKADI